

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2011ko uztailaren 28a. VIII. urtea. 2.265. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Larunbatean errepideetara ateratzeko deia egin du Egin Dezagun Bideak

Etziko mobilizazio egunean kalera irtengo dira «preso politikoek jasaten duten muturreko egoera desagertzea» eskatu, eta beren elkartasuna agertzeko

Villabonako gasolindegitik eta Tolosako Bentaunditik irtengo dira 11:45ean; bihar hileko azken ostirala denez, ohiko elkarretaratzeetara joateko deia ere luzatu dute 06



Villabonan, Remi Ayestaranen oroigarriaren ondoan, eskainitako prentsaurrekoko irudia. M. UGARTEMENDIA

## Villabonako Santio jaietako atsedeen eguna iritsi da

Baltsa jaitsiera egin behar zuten gazteek atzo, baina Oria ibaiaren ur emaria handia zela eta, igandera arte atzeratzea erabaki zuten; gaur atsedena hartzeko eguna dute billabonatarrek 04



Pailazoez bi guraso igo zituzten Gureako taula gainera. E. MAIZ

## Tolosako Udalak Jauregiren monolitoaren aurkako erasoa arbuia du

PSE-EE alderdiko Jose Ignacio Asensiok aurkeztutako mozioari testu alternatiboa aurkeztu zioten EAJk eta Bildu-Aralarrek, eta azken idatzia onartu zuten; Juan Mari Jauregi Tolosako zinegotzia izan zen 03

**FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK**  
Kondeko aldapa, 5  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**Gertu...**  
TOLOSAKO  
MILETA ZERBITZUAK  
BEILATOKI-BULABEA  
**24 H..**  
943 670 040

# Kirolari olinpiarrek aurkeztuko dituzte Inigo Asensiok

Aste honetan hasi da 'BAT to London 2012' saioa, eta hilabetearen behin izango da ETB-SAT katean

## Itzea Urkizu

Hilabetearen behin, eta 25 minutuko saioa osatuz, Inigo Asensio kazetari tolosarrak BAT Basque Team-eko euskal kirolari olinpiarrei buruzko saioa aurkeztuko du. Saioa herenegun hasi zen, Londresko Olinpiar Jokoen irekiera ofiziala baino urte bete lehenago, hain zuzen.

Goi mailako euskal kirola nazioartean sustatu eta babesten duen BAT Basque Team erakundeak, Kontrol Zekoizpen etxearekin elkarlanean sorturiko proiektua da BAT to London 2012 saioa. Saio berri honetan, euskal kirolari olinpiarrek eta paralinpiarrek izango dira protagonista; olinpiar jokoetarako sailkatu diren edo sailkatzeko aukera duten kirolari jarraipena egingo dute.

Besteak beste, kirolariak olin-

piar jokoetarako sailkapena lortzeko jokatzen dituzten Europako nahiz munduko txapelketak ikusi ahal izango dira, eta baita entrenamendu metodoak edo lesioen osatzeen azalpenak ere. Dena den, kirolaren beste aurpegi bat ere ezagutu ahal izango da. Horrela beraz, kirolariak euren, hauen prestatzaileei, senideei edo garai batean olinpiarrek izandako euskal kirolariak elkarrizketa egingo dizkiete saioan.

Proiektu honekin, 25 minutuko 12 saio burutuko dituzte, hilabeteroko maiztasunarekin, eta Londresko Olinpiar Jokoen hasierarekin amaituko da saioa.

## Kirolarien erakundea

BAT Basque Team-ek goi mailako euskal kirolaren garapena bultzatzea du helburu.

Eusko Jaurlaritzak, Kultura Sailaren bitartez, eta Euskal Irrati Telebistak bultzaturiko ekimena da. Hauxe gain, eliteko kirola sustatzearen aldeko apustua bereganatu duten ondorengo babesle pribatuak ere badira: Naturgas Energia, La Caixa, IMQ eta Cespa-Ferrovial.



Londrestik bertatik ariko dira saioa egiten. HITZA

## Irudia >



## GETARIA-ZARAUTZEN TXAPELDUNAK

Pasa den igandean, uztailaren 24an, Getaria-Zarautz travesia ospatu zuten beste urte bezela. Igerian egin beharreko frogaren honetara, hainbat tolosar joan ziren, bigarren urtez jarraian, Ikatza Ta-

berna Taldea deiturapean. Bigarren urtez jarraian, eta federatu gabeko igerilarien mailak, Ikatza taldeko tolosarrak garailu suertatu ziren proban, Hondarribia Jatetxea taldea gaindituz. HITZA

## > Laburrak

### Bisita gidatuak Menchu Galen erakusketan

**TOLOSA >** Pasa den astean inauguratu zuten 2008an zendu zen Menchu Gal margolariaren erakusketa, Aranburu jauregian. Datorren abuztuaren 4an eta irailaren 8an, bisita gidatuak antolatuko dituzte erakusketako komisarioa den Edorta Kortadi tolosarraren eskutik. Bai abuztuaren 4an, eta baita irailaren 8an ere, 19:00etatik aurrera izango dira bisitak.

### 'Toni La Sal' txotxongilo ikuskizuna, bihar

**TOLOSA >** Toni La Sal deituriko txotxongilo ikuskizuna izango da bihar, uztailak 29, Euskal Herria plazan. 19:00etan hasiko da haurrei zuzenduriko emanaldia.

## Irudia >



## ARRAUNAZ GOZATUZ

Urtero bezela, Laskorain ikastolako neska-mutilak, Lizarra eta Atarriabiako ikastolako ikasleekin batera *Euskaraz Bizi* udalekuetan dabilta. Argazkian, pasa den astelehenean Lekeition ospatu zen Euskadiko Traineru Txapelketaz gozatu zuten, eta Getaria-Tolosako neskek lorturiko garaipena ospatzeko aukera izan zuten udalekuan dauden ikastolako gaztetxoek. HITZA

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Adosatua.** Tolosan. Eguzkitzua. 4 logela, 2 bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldia, 2 autorentzako garaia, txokoa, jardina eta trastelekua. Interesatuak deitu 678 26 76 57 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Tolosan. Bi logela, egongela, sukaldia, komuna eta trastelekua dituen hormigoizko etxebizitza. Oraintze bizi-tzera sartzeko moduan dago etxea. Interesa dutenek, deizatzela 619 64 52 56 telefono zenbakira.



## XIV. HITZA Udako argazki lehiaketa

**1. Saria**

Landetxe polit batean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia

**2. Saria**

Tolosako Karlis estudioan argazki erreportaje bat

**3. Saria**

Astelena jatetxean bi pertsonentzako otordua



Pertsonako argazki bakarra bidali daiteke [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info) helbidera





Juan Mari Jauregiren inguruko hiru mozio aurkeztu ziren herenegungo bilkuran. Irudian, Jokin Azkue (EAJ) idazkariari mozioa ematen. A. IMAZ

# Jauregiren oroimenezko monolitoa konpontzen lagunduko du udalak

Tolosako zinegotzi eta Gobernadore Zibil ohiaren inguruko mozioa PSE-EEren ordezkariak, Asensiok, aurkeztu zuen

Bildu-Aralar eta EAJk euren mozio alternatiboa eraman zuten bilkurara

## Asier Imaz

Tolosako Udala osatzen duten Aralar eta Bildu, Juan Mari Jauregiren oroimenezko monolitoak jasandako eraso «arbiatu» zuten herenegun, ohiko udal batzordearen bilkuran. Horrez gain, Legorretan aurkitzen den «oritarriak izan dituen kalteen konponketan laguntzeko konpromisoa» adierazi zuen udalak.

Bilduko zazpi zinegotziren eta

Aralarko bakarraren aldeko botoekin onartu zuen mozio alternatibo hau udalak; PSE-EEK eta EAJk aurka bozkatu zuten. Izan ere, Juan Mari Jauregiren inguruko mozioa PSE-EEren zinegotziak, Jose Ignacio Asensiok, aurkeztu zuen lehenik. Ondoren, EAJren eta Bildu-Aralarren mozio alternatiboak iritsi ziren.

Ibai Iriarte alkatearen esanetan, «mozioa aho batez onartu ez izana denontzako da kaltega-

ria». Horrez gain, «bidea egiten» jarraitu beharra dagoela aldarrikatu zuen, elkarrekin topo egin-godutenaren esperantza azalduz. EAJren izenean, Jokin Azkuek hitz egin zuen. Euren mozioaren aldeko defentsa egin zuen, eta Iriarterekin ados agertu zen, mozioa aho batez onartzearen abantailaz hitz egiterakoan. Helburu hori lortze aldera, euren mozioan Sorturen estatutuetan agertzen dena jarri zutela ere azaldu zuen EAJren ordezkariak.

PSE-EEren ordezkari bakarrak, Asensiok, udalari ETaren historia osoa gaitzestea eskatu zion. Arnaldo Otegiaren hitzak ere gogora ekarri zituen: «Batzuk ETA soberan dagoela esaten dute, beraz, behin betirako desagertzeko zergatik ez duzue eska-

zuten?». Aralarko Iñaki Irazabalbeitiak azkenik, PSE-EEren ordezkariari, elkarren artean adostasuna lortzeko euren hizkuntza aldatu beharra izango dutela aipatu zion.

Zentzu honetan aipatu behar da, Asensiok atzo kaleratutako prentsa ohar baten bidez, azaldu duela bere alderdiak aurkeztutako mozioak «behartu» duela Bildu, Jauregiren monolitoaren eraso gaitzetsi, eta bere konponketak aurrera egin ahal izateko babes nahikoa jaso ez badu ere, Bilduri jarrera hau hartzea eta eraso gaitzestera eraman du. Garaipen txiki bat da eguneroko elkarbizitza lortzeko bidean», gaineratu du Asensiok.

Era berean, EAJren jarrerarekin «minduta eta kritikoa» azaldu

## Juan Mari Jauregi, zinegotzi eta Gobernadore Zibil ohi

➔ Juan Mari Jauregi 1951n jaio zen Legorretan.

2000ko uztailaren 29an, ETAK Tolosako Fronton kafetegian tirokatu zuen. Hospitalera iritsi orduko hil zen.

Tolosako Udaleko zinegotzia izan zen 1994. urtera arte, PSE-EEren ordezkari bezala. Ondoren, Gobernadore Zibil bilakatu zen Jose Maria Gurrutxaga ordezkatzuz. 1996an Euskal Herria utzi eta Txilera joan zen bizitzera. Bertan, Hego Amerikako Aldeasako buru izendatu zuten.

da Asensio, eta alderdiak Bilduri eskaera gutxi egin izana salatu du. «Ez Juan Mari Jauregi, eta ezta beste biktimarik ere, ez dute merezi errealitatea ezkatuzten saiatzeta eta terrorismoaren biktimen oroimena ezabatzea», gaineratu du.

## Mozioaren bost puntuak

Udalak onartutako mozioak bost puntu ditu, eta oinarrian Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako mozioa aurkitzen da, Ibai Iriarterek azaldu zuenaren arabera.

Lehen puntuan, «garai berrien aldeko» konpromisoa adierazi zuen udalak.

Bigarren puntuan, bakea eta demokrazia aldarrikatu zituzten, «ezinbesteko osagai bezala».

Hirugarrenok honela dio: «Bakea eta demokrazia eskubide norbanakoaren zein kolektibo guztien, zibilen hala politikoen berme bezala ulertzen dugu, besteren artean, euskal herritarrok askatasunez eta inposaturiko mugarik gabe herri honen etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidearen berme bezala, beraz».

Laugarren puntuan, «garai berriarako bidea» guztion artean egitea «ezinbestekoa» dela aipatzen da.

Azken puntuak, bosgarrenak, honela dio: «Juan Mari Jauregi zenaren senitarteko eta lagunei gure elkartasuna adierazi nahi diegu. Gainera, udalak oroitarrriak izan dituen kalteen konponketan laguntzeko konpromisoa adierazi nahi du».

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**HITZAren itzaletik ibiltzeko...**

Egin harpidedun uztailaren 29a baino lehen eta jaso eguzkitako hau opari

hitza<sup>info</sup>

Harremanetarako: 902-82 02 01 • harpidedun@hitza.info

Villabona-Aiztondo >



Asteartean, Joko Garbiko partida jokatu zen. M. UGARTEMENDIA



Txekorra goizean goizetik hasi ziren erretzen arratsaldean jateko; txikienek pailazoak izan zituzten ongi pasatzeko. E. MAIZ



Haurrek tailerretan autoak egin zituzten; Baltzen jaitsiera bertan behera utzita, gazteek, mozorroak jantzita, Berdura plaza guztiz bete zuten bertan bazkaltzeko. E. MAIZ

# Hiru festa egunen aurreko atsedena

Oria ibaiaren ur emari handiagatik igandera atzeratu dute atzo egin beharreko baltsen jaitsiera; 13:00etan izango da

Atsedean egunean indarrak berreskuratzeaz gain, pilota eta pala ikusteko aukera dago

**Eneritz Maiz** Amasa-Villabona

Aurtengo Santiojaiak euriagatik gogoratuak izango dira Villabonan. Atzo ere, goizean goizetik, euria izan zen nagusi. Gaurko atsedean eguna zerura begira pasa

beharko dute billabonarek, eta ea hurrengo hiru jai egunetan euriak hartzen duen atsedean.

Atzo, hurrek eguna indartsu hasi zuten. Ingurumena gai hartuta, autoak eraiki zituzten. Arratsaldean, egindako lana erakutsi

zuten, eta Korri, Xalto eta Brinko pailazoak ere izan zituzten.

Azken egunetako euria dela eta, Oria ibaiak ur emari handia darama. Seguritasunagatik baltsenjaitsiera ez egitea erabaki zuten Onddo Gazte Asanbladako kideek. Igandean 13:00etan aterako dituzte baltsak, eguraldiak laguntzen badie behintzat.

Berdura plaza ia txiki geratu zitzaizen bazkarian elkartu zirenei. Umorea eta mozorroak soinean izan zituzten gazteek. Bazkalos berriz, poteoan eman zuten.

Txekor jatea eta sagardo dastatzea egin zituzten eta Txerminen

↓ **Egitaraua**

**GAUR, UZTAILAK 28**

**Atsedean eguna**

■ **18:00.** Pilota palaz binakako herriko txapelketaren finala Bearzana pilotalekuan.

■ **18:30.** Pilota eskuz binakako afizionatuen finala Bearzana pilotalekuan.  
■ **22:00.** Jubilatuentzat kafe eta likore dastatzea, biltoki berrian musikaz alaiturik.

goizean goizetik izan zuten txekorra erretzen. Tripa betetzen jarraitzeko, bokata afaria izan zen Berdura plazan. Kontzertu gauarekin eman zioten amaiera egunari. Ostiralean, kuadrila egunarekin emango diete jarraipena.

Larunbatean ospatuko den Erromeri eguneko afarirako txartelak erosteko azken eguna da gaurkoa. Bildotsa burruntzian erreta jarriko dute afaltzeko. Txartelak soberan geldituko balira, Obaba tabernan egongo dira.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **bi afari pare** ditu

Villabonan izango den **Erromeria egunerako lau afari**

sariak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



Uztailak 30 larunbata - 21:00etan Errebote plazan

harpidedunak **hitza**



# Garmendia txapeldun lokotx biltzen, eta Otaño txapeldunorde aizkora

Eneko Garmendiak zortzi segundorekin lortu du txapela; zazpi segundogatik ihen egin dio Unai Otañori

**Imanol Garcia**

Iaz bezala, Baliarraingo Eneko Garmendiak jantzi du Gipuzkoako Lokotx Biltze Txapelketako txapela, zortzi segundoko alde aterata bigarrenari. Unai Otaño ibartarrak, aldiz, ezin izan zuen Gipuzkoako II. Mailako Aizkora Txapelketa lortu, Txapartegik zazpi segundogatik irabazi baitzuen.

Mendaron (Gipuzkoa) jokatu ziren bi txapelketak. Lokotx Biltze Txapelketan, Garmendiaz gain beste lau biltzaile lehiatu ziren: Joseba Altuna (Azpeitia), Ekaitz Azkoaga (Leitz-Gatzaga), Jon Larrañaga (Mendaro) eta Gotzon Zulaika (Mendaro). Kirolari bakoitzak 1,25 metroko tartean jarritako 50 lokotx bildu behar izan zituen.

Lehen txandan, Altuna, Azkoaga eta Zulaika lehiatu ziren. Azkoagak huts batzuk egin zituen hasieran eta segundo dezente galdu zituen. Zulaikak ere zortzi bat huts-egite egin zituen, baina eskarmentua baliatu zuen txandako denborarik onena egiteko. Al-

## ↓ Emaitzak

### Gipuzkoako Lokotx Biltze

Txapelketa	
1. Eneko Garmendia	06:20
2. Jon Larrañaga	06:28
3. Gotzon Zulaika	06:39
4. Joseba Altuna	06:46
5. Ekaitz Azkoaga	07:01

### Gipuzkoako II. Mailako Aizkora

Txapelketa	
1. Luis Txapartegi	14:35
2. Unai Otaño	14:42
3. Jon Irazu	15:46
4. Mikel Larrañaga	15:49
5. Joxe Ugarteburu	16:05

tunak lehen parte hartzea izan zuen, eta huts gutxien egin arren, ez zuen hobetzerik izan Zulaikaren denbora.

Bigarren txandan lehiatu ziren bi kirolaririk arituena: Larrañaga eta Garmendia. Larrañagak bi huts-egite izan zituen eta Garmendiak bat ere ez. Beraz, horrek erabaki zuen hein handi batean txapela Garmendiaren aldera, biek ala biek oso lehia estua baitute; Garmendiak txapela jantzi zuen iaz eta Larrañaga txapeldunordea izan zen.

### Azken kolpeek erabaki zuten

Aizkora Txapelketan, finalaren amaiera estuan, Txapartegi mendean hartu zuen Otaño azken aizkorakadatan, eta soilik zazpi segundoko aldeagatik jantzi zuen.

Azken kanaerdikoaren bigarren aldean aurreratu zitzaion Otaño Txapartegiri, baina Otaño ez zuen behar bezain ongi bideratu epaia eta berriro beste aldetik amaitu behar izan zuen az-

ken enborra buelta emanda; hori baliatu zuen txapeldunak azken aizkorakadak lehenago emateko eta enborra lehenago erdibitzeko. Jon Irazu zizurkildarra izan zen hirugarrena.

Sei aizkolarari aritu ziren finalean: Unai Otaño (Ibarra), Jon Irazu (Zizurkil), Luis Txapartegi (Zestoia), Joxe Ugarteburu (Ezki-Itsaso), Mikel Larrañaga (Azpeitia) eta Xabier Zaldua (Zumarraga).

Lan erdiak amaitzen (hirugarren enborra, lehen 60 ontzakoa), Txapartegi izan zen lehena, eta 44 segundoko alde ateratzen zion bigarren izan zen Otañori. Larrañaga, Ugarteburu eta Irazu nahiko parean ziharduten eta atzeraxeago Zaldua.

Azken kanaerdikoraino pixkana hurbildu zen Otaño, eta batez ere, azken kanaerdikoaren lehen aldean bizitu zuen erritmoa Ibarrrakoak. Baina epaia hobeto bideratu zuen Txapartegik, eta horrela lortu zuen txapela. Zestoarra berriro ariko da lehen mailan.



Bidaiera joango direnak paraje hauetatik ibiliko dira. HITZA

## Pirinioetara joateko bidaia antolatuta du Aizkardik

Irailaren 17an eta 18an izango da aurtengo bidaia; Frondiella eta Faixa mendiak igotzeko aukera egongo da

**I. Garcia** Villabona

Aizkardi mendi elkartekoek presatu dute irailean Pirinioetara joateko bidaia. Irailaren 17an eta 18an egongo dira mendikatean. Lehenengo egunean Pont d'eEspagnetik (1.495 m.) abiatuko dira Wallon-eko (1.865 m.) aterpera joateko. Hortik Faixako lepora (2.664) igoko dira, ondoren Faixako aintziretatik jaitsiera egiteko eta Respumosoko aterpetxera (2.200 m.) iristeko. Egun horretan

aukera izango da Faixako gailurrera (3.005 m.) igotzeko.

Bigarren egunean Arriego urtegitara (2.240 m.) joango dira eta Lavedango portura (2.615 m.) igoko dira, ondoren Plan d'Astera (1.470 m.) jaisteko. Egun horretako beste aukera Frondiella gailurrera (3.070 m.) igotzea da, gero Wallongo lepotik (2.500 m.) jaisteko. Ibilaldi hauentzako aurreikusitako iraupena, egunean 16 kilometro inguru eginez, zazpi ordutakoa da.

Bidaia honetarako izena emateko 649 71 71 82 telefono zenbakira deitu behar da edo Aizkardiren egoitzara joan 20:00etatik 22:00etara. Hori bai, izena abuztuaren 29tik aurrera eman behar da eta azken eguna irailaren 15a izango da.



## harpidedun izateak badu saria zozketa

### 1 Bi sorta

**Arbizu hestebeteak**  
etxearen eskutik bi sorta

Arbizu • Tel.: 948-46 06 28  
www.embutidosarbizu.com  
www.euskalherrikoaplaza.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



### 2 Gargardoa

**Pagoa**  
Euskal Herri berriko garagardoa

Oiartzun  
Tel.: 34 619-42 11 53  
www.pagoabeer.com  
www.euskalherrikoaplaza.com/pagoa



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

### 3 Bi sorta

**Erlandere**  
Nafarroako ezti ekologikoaren bi sorta

La Regueta, 1 • Arbeiza  
Tel.: 686-37 32 41  
erlandere@hotmail.com  
www.euskalherrikoaplaza.com/erlandere

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53



### 4 Bi elastikoa

**TTAK**  
etxearen eskutik bi elastiko

-Neska S-

www.euskalherrikoaplaza.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostrialdean argitaratuko ditugu.

harpidedunen **TXOKOA hitza** info



Villabonan dagoen Remi Ayestaranen oroigarriaren ondoan eskaini zuten prentsaurrekoa. M.U.

**Irati Mujika** •  
Euskal preso ohia

«Harrera ederra egin zidaten»

**M.U.** Amezketara

Irati Mujika amezketarra pasaden astean aske geratu zen, 2009ko azaroan bigarren aldiz atxilotu zutenetik preso egon ondoren. Prentsaurrekoan ere izan zen.

**Larunbat goizaldean iritsi zinen Amezketara, zer moduzko harrera jaso zenuen?**

Harrera ona izan zen. Atarian bazeuden inork gonbidatu ez zituen eta behin eta berriz zapaldu nahi gaituzten pertsona batzuk, baina, behin frontoira sartuta jende mordo zegoen eta harrera ederra izan zen benetan.

**Zein baldintzatangera zara aske?**

10.000 euroko bermea jarri zidaten, hori ordainduta behin-behinekoko askatasunean nago; astero sinatzea joateko aginduarekin eta Estatu Espainiarretik ateratzeko debekuarekin. Hori izango litzateke hemendik epaiketa birtarte daukadan egoera. Ez dago aurreikuspenik epaiketa noiz izango den.

**Bitan atxilotua izan zara, nola bizi izan duzu egoera hau?**

Guri tokatu zaigu zakurren eskuetatik pasatzea eta tortura eza gutzea, eta ez da gozoa. Zorionez Euskal Herrian elkartasunak ez du etenik, kideekin egotean babesa izan dut, eta eskutitzek, bisitek... laguntzen dute. Orain lanean jarraitu beharko dugu, ez delako posible gaur egun oraindik egoera hau bizitzea.

**2009ko sarekadan 34 gazte atxilotu zituzten, zein irakurketa egiten duzu?**

Momentuan mediatikoki honelako kolpeak ematea interesatzen zaiela uste dut, beraien bide errepressoaren propaganda moduan nahi duten bezala eramaten gaituzte. Gu bezala eramandako ia 300 gazte kalean daude gaur egun, epaiketaren zain. Nahi dutena egiteko bidea irekita dute.

# Presoei, bidean beraiekin daudela erakusteko ekimena antolatu dute

Bihar hileko azken ostirala denez, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan ohiko elkarretaratzeak egingo dituzte

Egin Dezagun Bidea ekimenaren mobilizazio eguna larunbatean izango da

## Maier Ugartemendia

Egin Dezagun Bidea ekimeneko partaideak larunbat honetan errepideetara aterako dira «preso politikoei jasaten duten muturreko egoera desagertzea» eskatzeko.

Ekimeneko sustatzaileek eskualdeko jendarteari «kalera ateratzeko» deia egin diete, honela, «mendekua eta suntsitzea xede dituen espetze politika honen aurrean» aski dela esateko.

Honekin batera euskal preso-

en eskubide guztiak defendatuz lau eskaera ere egin dituzte. Bate-tik, «euskal preso politiko guztiak Euskal Herrira ekartzea» eta «biziarteko zigorra aplikatzeko aukera ematen duen doktrinaren derogazioa» eskatu dituzte. Era berean, «zigor osoa eta zigorraren hiru laurdenak bete dituzten presoak kalera ateratzea» aldarrikatu dute, gaixotasun larriak eta sendaezinak dituztenak kalera ateratzearekin eta isolamendu eta bakardade egoerak desagertzearekin batera.

## Larunbateko hitzordua

Gauzak honela, ekimeneko kideek «eragile sozial eta politiko guztiei eta gatazka konpontzeko bidean aurrera egiten jarraitzearen alde dauden pertsona guztiei» larunbatean, hilaren 30ean, antolatutako ekimenetan parte hartzeko deia egin dute.

Egin dezagun bidea mobilizazio egunaren barruan, Tolosaldean errepideetara aterako dira; zehazki 11:45ean Villabonako gasolindegitik eta Tolosako Bentandititik hasita.

## Elkartasuna

Ostiral hau, hileko azken ostirala izanik, bihar iluntzean ohiko elkarretaratzeak izango dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan, eta hilabetero bezala, hauetara gerturatzeko deia burutzeko ere baliatu zuten egindako agerrialdia.

## ↓ Azken ostirala

### BIHAR

- **Aduna.** 20:00etan, herri sarrerako biribilgunean.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketara.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30ean, herriko sarreran.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean, herriko plazan.
- **Leaburu-Txarama.** 20:15ean, Txaraman.
- **Leitza.** 20:00etan, Lopeneko biribilgunean.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Orendain.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean, Trianguloa plazan.
- **Zizurkil.** 20:00etan, Joxe Arregi plazan.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

**Alkateen elkarrizketak** →**Ibai Iriarte** ◊ Tolosako alkatea

Ibai Iriarte Euskadiko Gazteri Kontseiluaren Gipuzkoako Koordinatzailea zen, maiatzaren 22an hauteskundeak irabazi, eta Tolosako Udaleko alkatetza hartu zuen arte.

# «Gardentasuna behar da, jendeak jakin egin behar du udalean egiten duguna»

**Izteia Urkizu**

Ibai Iriartek (Tolosa, 1983) ia bi hilabete daramatza Tolosako Udalean. Legealdirako dituzten asmoei buruz aritu da.

**Zerk bultzatu zintuen zerrendaburu izatera?**

Herri honetan belaualdi desberdinek erakutsi digute ardurak hartu behar izan direla. Egoerak ere eskatzen zuen horrelako arduraria maila bat norbaitek hartu behar izatea, eta proposamena luzatu zidaten. Gazteoi ardurak hartzeak beldurra ematen digun gizaritean bizi gara, eta guk ere besteek bezain beste gauzak egin ditzakegula eskatu izan dugunez, hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia iritsi zait.

**Maiatzaren 22ko hauteskundeetan Tolosan irabaztea espero al zenuen?**

Helburua zerrenda bozkatuena izatea zen, eta hortik aurrera borrokatzea. Gero, batuketa elektoralak atera behar dira, ordea; hamazazpi eserleku daude, eta gehiengoa zeinek ateratzen duen ikusi behar da. Alde horretatik, neurri batean sorpresa izan zen.

**Ia bi hilabete daramatzazu udalean.****Nolakoa izan da lehen kontaktua?**

Oso ona. Batez ere, argi ikusi duguna da, udal haurmartxan dagoe la agintari politiko batzuk edo besteak indarrean egonda ere. Udal teknikariek daramate udalaren egunerokoa, eta guk beraien aldetik babes eta laguntza handia nabaritu dugu.

**Orain arte egindako adierazpenetan, udalaren atek irekiko dituzuela eta parte hartzea sustatuko duzuela esan izan duzue, nola gauzatuko duzue praktikan hori?**

Parte hartzeak, lehenik eta behin, gardentasuna eskatzen du. Alde honetatik, orain ari gara egoera ekonomikoa nolakoa den aztertzen, eta herritarrei argi eta garbi esango zaie irailetik aurrera, egoera nolakoa den. Irailen batzar bat antolatuta nahi dugu, hurrengo urteko aurrekontuei begira markatu nahi ditugun ildoak azaltzeko. Lehenik eta behin gardentasuna behar da, jendeak jakin egin behar baitu hemen egiten duguna. Hortik aurrera, batzordeak arratsaldez egingo ditugu jendeak parte har dezan, eta denon arteko elkarlan bat sustatuko dugu. **Udalaren egoera ekonomikoa txarra dela plazaratuta, jada, hala ere. Zein**

**da egoera hori? Nola egingo diozue aurre?**

Krisi garai batean bizi gara, familiarik ere krisi garaian bizi dira, eta baita udala ere. Momentu honetan, diru sarrerek justu-justu erantzuten diete Tolosako Udalak dituen gastu arruntei. Horrek zer dakar? Inbertsioetarako, eta udalak duen zorrari aurre egiteko, aukera gutxi izatea. Zorpetze maila ez dugu handitu behar, gutxitzen saiatu behar gara, eta argi daukagu beste erakunde batzuetatik ere

**egin duzuen batzorde antolaketa kritikatu zuen. Besteak beste, enplegua sustatzeari garrantzirik ez diozuela eman esan zuten. Honen aurrean, zer duzue esateko?**

Oso argi daukagula krisia izango dela udal honen oinarrietako bat. Momentu honetan, hiru plan pilotu ditugu, lana eta enplegua sorlitzeko. Nik ulertzen dut tarteka batzuek titularrak bilatzea, baina krisia, eta Tolosaldeko langileak eta hauen familiak, gure oinarria dira. Guk lan duina sortu nahi du-

bat egiten dugu: Tolosaldeko herritarrek bigarren mailako herritarrek izangara orain arte, ez zaizkigulako eskaini, gainerako eskualdeei eskaini izan zaizkien zerbitzu berak. Eskualdeko udal guztiek eta Andoaingoak eta Legorretakoak, koordinakundeak egiten dituen eskakizunekin bat egitea pauso garrantzitsua dela uste dut. Herriak guri eman digu ahotsa, eta jo behar diren erakundeetako ateak joko ditugu, hemen go nahi hauek betetzeko.



L. URKIZU

dirua gureganatu behar dugula. Udalak martxan dituen proiektuak ez ditugu geratu nahi.

**Aurreko legealdian euskararen ordenantzarekin gorabehera batzuk izan ziren. Esparru honetan, zein helburu ditu udalak Tolosari begira?**

Kontuan izanda Tolosako populazioaren %70a baino gehiago euskalduna dela, argi daukagu udalaren funtzionamenduak euskarazkoa izan behar duela. Behin eta berriz aipatu dugu UEMAN sartzearen ideia. UEMAN sartzeari ez da sinadura bat bakarrik; UEMAN sartzeari konpromiso batzuk eskatzen ditu. Zentzu horretan, guk Tolosa euskaldun bat nahi dugu; euskaraz mintzo dena, euskaraz biziko dena, euskaraz amestuko duena eta euskaraz lan egiteko duena. UEMAN sartzeko pausoa eman aurretik, euskararen inguruko herriko eragileekin aztertuko nahiko genuke egoera, eta horren ondoren pausoa eman. Guztiok sentitu behar dugu horretan parteaita, eta guztiontzat izan behar du erronka bat. **Lehen osoko bilkuran, EAJK zuek**

gu, eta herritarrei, lana eskubide bat den neurrian, lana izateko baldintzak eskaini nahi dizkiegu. Gaur egun, oraindik *La villa papepera* deitzen digute, eta 20 urte pasa dira garai harrez geroztik. Esan nahi dudana da, etorkizuneko Tolosa zein bidetan jarri behar dugun ikusi behar dela; bide horretan, eragileek osatutako mahai bat osatu behar da. Guk Mahai Sozioekonomikoa deitu diogu, eta bertan, hainbat eragile batu behar ditugu, eta perspektiba horretan jarri. EAJK oposizioa bere burua nabarmenduz egitea erabaki du. Gobernuan zortzi urtez egon dira, eta orain, denbora horretan guztian egin ez dituzten proposamenak egiten ari dira. Guretzat oposizioak garrantzia handia du, oposizioa ere beharrezkoa da. Baina oposizioa arduraz egin behar da, eta hori da eskatzen dieguna.

**Osasun publikoaren azia pil-pilean dabil azken hilabeteotan eskualdean. Zein aukera ikusten dituzte Asuncion klinika eskualdeko ospitale publikoa izatera pasatzeko?**  
TOPAK beti esan izan duenarekin

**Laskoraingoiko deituriko eremuko proiektuak Bonberenea etxea bota ditek zekarren, eta honek aldarrikatzen duen protesta piztu zituen herrian. Udalak zein iritzi du proiektuaren inguruan?**

Hemen, kontua da San Estebanekin zer egingo den. Guk argi eta garbi esan dugu lehen momentuak, proiektu honek iraganeko eskamei erantzuten ziela, eta Tolosak gune horri eman beharreko tratamendua oso garrantzitsua dela, kontuan izanda, herriak duen azken zabaltze-esparrua dela. Bide horretan, proiektua geratu egin dugu, izan ere, ez dugu sinesten 1.200 etxebizitza behar direnik. Sinesten dugu, etxebizitza politikak ere benetako beharrei erantzun behar diela. Gainera, guretzat Bonberenea aktibo bat da, eta ez arazo bat. Sekulako aukerak eskaintzen dizkigun eragile bat da, eta guk ez dugu botako. Baina esan bezala, Bonbereneaz gain, eremu hori guztia estrategikoa da guretzat, eta hor parte hartze pausoa bat ireki nahi dugu, auzotarren eta herritarren artean, gune

horrek hartu beharreko bidea zein izango den erabakitzeko.

**Alde Zaharra biziberritzeaz ere hitz egin izan duzue maiz...**

Guretzat garrantzia berezia dute bai Alde Zaharrak eta baita auzoek ere. Bizitzeko leku erakargarria bilakatu behar dugu Alde Zaharra, eta garaiki ikusita, inbertsio publikoak eta pribatuak behar dira bizilagunei zerbitzu egokiak eskaintzeko.

**Hirigintzarekin jarraituz Voith-Gorostidiko etxebizitzak auzian, eraiki gabe dauden etxebizitzak hala geratuko balira, zonalde horretarako zer proposatuko zenuke?**

Esan daiteke, gai honen inguruan auzitegiak ez duela mamira sartu nahi. Gure nahia etxebizitza horiek ez eraikitzea eta azpiegitura publikoak eraikitzea litzateke. Adibidez, frontoi bat datorkit burura. Hala ere, iritsi berriak gara, eta erabakiak negoziatu behar dira, ez baitaude gure esku soilik.

**Kulturaren esparruan aldatzeko irizango al da legealdian honetan?**

Herri-kultura sustatu nahi dugu, herriko taldeen arteko harremanak indartu nahi ditugu. Oso ekimen kultural interesgarriak egin izan dira orain arte, baina orain, eragileen arteko elkarlan eta sinergian pentsatu behar da.

**Hondakinen kudeaketaren eredu errotik aldatzea ezinbestekoa dela eresan izan duzue.**

Uste dut oso garrantzitsua dela herriak jakitea hondakinen kudeaketa udalarentzat zer den. Beste herrialde batzuetan egin diren proiektu batzuk mahai gainean jartzeko garaia da. Tolosari hoberekin zein egokitzun zaion ikusi behar da. Garbi daukaguna da ez dugula errausketarik nahi.

**Aparkalekuen arazoa areagotuz doabai Tolosan, baita beste lekuetan ere. Zer proposamen duzue?**

Gure asmo nagusia herria oinezkoie bideratzea da. Autoaren inguruko kultura aldatze bidean ere pausok eman behar ditugu, ohi-turak aldatuz.

**Bukatzeo egingo al zenuke Gipuzkoan Bilduk lortu dituen emaitzen inguruko irakurketa?**

Bilduk izan dituen emaitzak koalizioak gauden garaia irakurketa politiko egokia egin delako eman dira. Eta zentzu honetan, udalak ere eragin behar duela uste dugu. Gure ustez udala eragile aktibo izan behar du aldateta politikoari eta prozesuari berari bultzada emateko. Zentzu honetan lanean hasi gara jada, marko bat definitzen hasteko, eta udalean dauden beste eragile politikoekin hitz egin behar da horretarako.

**Zeintzuk dira markoaren ardatzak?**

Eskubide politiko eta zibil guztiak bermatzea; bai norbanakoan, zein nazio bezala dagozkigunak; gatazka sortutako minak aitor-tzea; eta berradiskidetzea bultzatzea. Bada garaia etorkizuna elkarrekin egiteko.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Ibarra.** Ibarrako Udalak San Bartolome jaien antolaketarekin jarraitzeko asmoz bilera egingo du gaur, 19:30ean udal-etxeke pleno aretoan.
- **Tolosa.** Tolosa Kantariren entsegu egongo da gaur, 20:00etan Kultur Etxean.
- **Tolosa.** Asis Sarearen ototzaldi bilkura egongo da gaur, 19:30ean Klarisen komentuan.
- **Berastegi.** Abuztuaren 5ean izango den herri afarirako txartelak erosteko azken eguna bihar izango da. Urepele eta Basurde elkarteetan edo Zelai tabernan eskuratu daitezke.

**JAIAK**

- **Villabona.** Santio jaietako atsedeen eguna da gaurkoa, baina hala ere, pilota partidak eta erretiratuentzako kafe eta likore dastatzea egongo dira. Ikus egitarau zehatza 4. orrialdean.

**ERAKUSKETAK**

- **Tolosa.** *Jeiki, jeiki* erakusketa ikusi daiteke berriro ere, Aranburu jauregian irailaren 20a bitarte. Asteartetik larunbatera 17:30etik 20:30era bisitatu daiteke.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

# Abaetxe taberna-jatetxeok parrillak erabilgarri jarri dituzte

Udalak lorategian haur parkea eta mahaiak jarri ondoren pentsatu dute aukera hori ematea bertako arduradunek

**Imanol Garcia** Bedaio

Uda honetan Bedaiora joateko beste arrazoi bat dago. Abaetxe taberna-jatetxeok aukera emango dute beraiek dituzten parrillak erabiltzeko. Orain gutxi, Abaetxeren lorategian mahai batzuk eta haur parkea jarri ditu Tolosako Udalak, eta atsedeen baten itxura hartu du. Hori baliatuz pentsatu dute parrillaren erabilera eskaintzea afari-merienda egiteko, Izaskun Jauregi Abaetxe arduradunetako batek azaldu duenez.

Taberna-jatetxea ostiraletik igandera bitarte zabaltzen dute. Hori bai, kontuan hartu behar da abuztuaren 5etik 7ra itxita egongo dela. Parrillak erabili nahi dituenak arduradunetik eskatu behar die. Baldintza bat jarri dute horretarako: ikatza eta edariak Abaetxekoei erosi behar zaizkie.

Jauregik dioenez, «eguraldi txarra egin du eta ez da izan aukerarik parrillak erabiltzeko. Espe-ro dugu aurrerago eguraldi hobea egitea». Udan ez ezik, udazkenaren hasieran ere zerbitzu hori eskaintzea aurreikusten dute. Bestalde, lorategiak irekita egongo dira astean zehar.

Abaetxe taberna-jatetxea zabaldu zuteneko lehen urtea beteko da irailaren 8an. Azpiegitura udalarena da, eta Izaskun eta Joakin Jauregi anai-arreba bedaiotarrak kudeatzen dute.



Goiko argazkian, Abaetxe lorategietan jarritako mahiak. Behekoan, Joakin Jauregi parrillak erabiltzen orain gutxi egindako afari batean. HITZA

**Agurrak**



**Zorionak!**

**Izei Gereta Larreta (Anoeta).**  
Gaur 3 urte.  
Gure mutiko alaiari mila muxu familia guztiaren partetik. Segi beti bezain alai.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak**

**XEHETASUN TXIENETAN ERE KALITATEA NAGUSI**



TOLOSA MOTOR, S.A.  
PEUGEOT KONZESIONARIOA  
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938  
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-308  
BERRIA



Ertausketa zerbitzu berria martxan!  
Ertausketa labe proposazekin.